

EUSKALTZAINDIAREN ONOMASTIKA BATZORDEAREN EBAZPENA METROBILBAO LURPEKOAREN GELTOKIEN IZENEZ

Erret Akademi honen Onomastika batzordeak argi dakusa leku izen edo toponimoen garrantzia, bai herri baten kultura eta hizkuntz egoeraren adierazle, baita eguneroko bizitzan nahitaezko tresnak direlako ere. Ondorioz ez dela edonola eta inolako kriterio argi eta zehatzik gabe erabaki behar den gaia uste du. Kasu honetan, udalerri izenetan bezala, ahozko tradizioa eta idatzizkoa uztartu behar dira, beti ere izen egokiena hautatzeko. Uztartze lan horretan linguistika ezezik legedia ere kontuan izan behar dugu, izan ere, Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko Oinarrizko legearen 10. artikuluan argi eta garbi azaltzen baita nola egin behar den toponimia normaltze lan hau.

Goiko irizpide nagusi horiek izan ditu kontuan batzorde honek Metrobilbaok geltoki izenez eginako eskaera aztertzean. Geltoki izenak ez dira edonola hautatu, antza denez, IMEBISAK egin zuen bezala, ikerketa baten ondorioz baik, beti ere gaur egungo erabilera eta historian zehar izandakoa kontuan harturik. Beti saiatu da batzorde hau izen historikoei lehentasuna ematen, batez ere hauek bizi-bizirik daudenean, eta ez berriak asmatzen. Horrela, ez da egoki ikusten *Bidezabal* izena jartzea, urte gutxi duen kale baten neotonimoa dena, 1704an lehenengoz eta gaur egun erabiltzen den izena, *Sarria*, baztertuz.

Era berean ez du batzordeak ikusten maila berean ipini daitezkeenik udal izenak (*Getxo, Barakaldo*), auzo edo inguru zabalen izenak (*Bagatza, Sarria*) edo kale (*Fueros/Foruak*) eta baserrienak (*Ibarbengoa*). Edozeinek, bizitzaren edozein arlotan argiago identifikatzen du toponimia nagusia (*Getxo, Barakaldo*) txikia baino, azken honek askoz ere ezagutza handiagoa eskatzeaz gain aldakorra delako.

Ondorioz eta labur, batzordeak lehentasuna izen generikoei eman behar zaiela uste du. Beraz, proposamenetan ordena horretan agertuko dira izenak, ahal dela, bidaiariari ahalik eta informazio zehatzena ematen, bere beharretarako egokiena den geltokia autaz dezan.

| Gaur egungo izenak | Proposamena |
|---|--|
| <p>1. Linea Bolueta Basarrate Santutxu Casco Viejo Abando Moyúa Indautxu San Mamés Deusto Sarriko San Inazio Lutxana Erandio Astrabudua Leioa Lamiako Areeta Gobela Neguri Aiboa Algorta Getxo-Bidezabal Iberberango Berango Larrabasterra Sopelana Urduliz Plentzia</p> | <p>1. Linea Bolueta Basarrate Santutxu Zazpi Kaleak/Casco Viejo (1) Abando Moyua (2) Indautxu San Mames/Santimami (3) Deustu (4) Sarriko Erandio Lutxana Erandio Astrabudua (6) Leioa Lamiako Areeta Gobela Neguri Aiboa Algorta Getxo-Sarrria (7) Getxo-Ibarra (8) Berango Larrabasterra Sopela (9) Urduliz Plentzia</p> |
| <p>2. Linea Cruces Fueros Santa Teresa Urbinaga Sestao Abatxolo Portugalete Peñota Santurtzi</p> | <p>2. Linea Gurutzeta/Cruces (10) Barakaldo (11) Bagatza (12) Urbinaga Sestao Abatxolo Portugalete Peñota Santurtzi</p> |

Azalpenak:

Geltoki izenak ofizialtzeko Euskararen Erabilera Arauzkotzeko Legearen hamargarren atala hartu behar da kontuan. Hamargarren atalaren 1. puntuan jatorrizko hizkuntza bakoitzari dagokion idazkeraz men egin behar zaiola, eta atal beraren 3.ean izenak oso desberdinak izanez gero biak ofizialak joko direla, dio legeak.

1. Euskaldunek mendeetan erabili duten eta gaur egun oraingoz erabiltzen dutena *Zazpi Kaleak* izan da, eta ez azken urteotan banaka batzuek, Donostiako izen bat mimetikoki kopiatuz, asmatutako *Alde Zaharra*. Bilboko Udalak ere bere auzo errotulazioan *Zazpi Kaleak/Casco Viejo* erabiltzen du. Guzti horrengatik, eta legearen 3. puntuari so eginez biok behar dira ofizialdu. Era beran, Eusko Trenbidearen geltoki berriaren izena *Zazpikaleak/Casco Viejo* dela gehitu behar da.

2. Bergarako etxe-izena eta deitura izanik, 1391an, *Oxirondo* auzoan azaltzen dena, hobe azentu ikurra markarik gabe ematea, *Moyua*, hizkuntza bietarako baliagarria izateko.

3. Euskal ordaina *Santimamiñe/Santimami* da, Txorierrin egiaztatu ahal den moduan. Futbol-zelaiak duen ospe handiarengatik erdal izena soila ematekotan hobe azentu ikurrik gabe ematea, *San Mames*, hizkuntza bietarako baliagarria izan dadin.

4. Euskal izena denez, *Deustu* baino ez da eman behar, aipatutako legeraen 10. artikulua lehen puntuan argi azaltzen den moduan.

5. *San Inazio* bidezkoa bada ere hohe kultoagoa den *San Ignazio*.

6. Azkeneko -a artikulua da eta beraz deklinatzean kendu behar da.

7. **Sarria** (eta honen aldaketak: *Sarri* eta *Sarris*) izan da getxotarrek erabili eta erabiltzen duten izena inguru hau izendatzeko, 1953an M. Amannek egindako Getxoko mapan agertzen den bezala (ikus eranskina). XVIII. mendeko fogerazio edo sutegietan *Sarria-aurrekoa*, *Sarria-bekoa* eta *Sarria-atzekoa* baserriak azaltzen dira. Getxoko *Sarria* deiturak ere hor du jatorria. Bidezkoa litzateke **Sarria** izen soila ematea eta hurrengoa izatea **Getxo**.

8. *Sarria* kasuan ez bezala *Ibarberango* ez da inguruaren izena, etxe zehatz batena baizik, horrengatik hobe da **Getxo** ipintzea, edo nahi izanez gero **Getxo-Ibarra**. *Ibarra* egokiagoa da, adirazlea izateaz gain, hortik datozelako *Ibarra* eta *Ibarbengoa* etxeen izenak, egun *Iberretxu* eta *Ibarberango*. *Ibarberango*, *Ibarbengoa* moduan dokumentaturik azaltzen zaigu XVIII. mendean egindako fogerazioetan, nahiz eta 1953 urtetik aurrera herriko sasietimologiz sortutako *Ibarberango* zabaldu. Baserria orain dela urte batzuk erori zen, baina bertan bizi izan zen, eta bertan jaiotako ama zuen M. Elgezabalek, jatorriko izena *Ibarbengoa* zela egiaztatu zuen, nahiz eta hara doan estartaren izen ofi-

ziala *Ibarrangoa* izan. Hala ere baliteke egingo den geltokia ez egotea baserri horren lurretan albokoetan baizik. Azken puntu hori kontutan hartu da egokia goa den *Getxo-Ibarra* izena hautatzeko.

9. *Sopela* da euskaldun guztiek, eta erdaldun askok, erabiltzen duten izena, Akademia honek egindako izendegian ondo azaltzen den moduan, bokalen arteko n-ren erorketaz, gaur egun ofizialdurik dauden *Fruiz*, *Galdakao*, *Leioa*, *Lemoa*, *Lemoiz*, *Zestoa*, *Lazkao* eta *Dorrao* kasuetan bezala.

2. Linea:

10. Gorago aipatutako artikulua arabera izen biok ofizialdu behar dira, euskal izena ez baita itzulpena jatorra baizik (*Guruceta* moduan erdaldunduta).

11. *Barakaldo* populazioan Bizkaiko bigarren herria dela kontuan harturik, hobe da, Portugaleta edo Santurtziren kasuetan egin den bezala, herri-izenaren erabilera, kanpotik datozen bidaiarentzako askoz ere argiagoa baita.

12. Barakaldoko Estatistika Zerbitzuak egindako txostenean (eta erantsita doana) *Bagaza* (*Bagatza* euskal izenaren aldaketa) eta *Beurko* dira distrito horren izenak eta ez F. Franco garaian, *Sección Femenina de la Falangeren* orimenez egin eta, 1962ko ekainaren 24ean, herria *askatu* zuteneko XXV.en urteurrenean, zabaldutako Santa Teresaren elizarena, *Santa Teresa* izen bereko elizaurrean dagoen plaza baino ez izanik.

Eta hala adierazteko, izenpetzen du Bilbon mila bederatziehun eta laurogeita hamaseigarreneko otsailaren hogeian.

DICTAMEN DE LA COMISION DE ONOMASTICA DE LA REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA/EUSKAL-TZAINDIA SOBRE DENOMINACION DE LAS ESTACIONES DEL METRO DE BILBAO

La comisión de Onomástica de esta Real Academia es consciente de la importancia de los nombres de lugar o topónimos, tanto como expresión de la cultura y lengua de un pueblo, como herramientas de uso en la vida diaria. Por lo tanto considera que no es un tema que se deba decidir de cualquier manera y sin criterios claros y definidos. En este caso, al igual que en el de los municipios, se deben conjugar las tradiciones oral y escrita para la decidir la designación apropiada. En este proceso de adecuación se debe tener en cuenta, además de los criterios lingüísticos la ley, puesto que la Ley Básica de Normalización del uso del Euskera, en su artículo 10, especifica claramente cómo debe llevarse a cabo este proceso de normalización.

Estos criterios generales ha tenido en cuenta la comisión para estudiar la petición de Metrobilbao sobre la nomenclatura de las estaciones. Los nombres de las estaciones no han sido elegidos de una forma arbitraria, como al parecer hizo IMEBISA, sino como consecuencia de una investigación, teniendo siempre en cuenta la utilización actual y la histórica. La comisión ha intentado dar preferencia a los nombre seculares, principalmente cuando éstos están vivos, y no a la invención de nuevos. Así, no considera apropiado el nombre de *Bidezabal*, que corresponde al de una calle creada hace pocos años, arrinconando el de *Sarria*, documentado desde 1704 y en uso en la actualidad.

Igualmente la comisión no considera que se puedan colocar al mismo nivel los nombres de municipios (*Getxo, Barakaldo*), los de barrios o genéricos (*Sarria, Bagatza*) y los de calles (*Fueros/Foruak*) o casas (*Ibarbengoa*). Cualquier persona, en cualquier faceta de la vida, identifica más claramente la toponimia mayor (*Getxo, Barakaldo*) que la menor, que necesita un conocimiento mayor y es más cambiante.

En consecuencia, la comisión de Onomástica cree que se debe dar preferencia a los nombres genéricos. Por lo tanto, y en la medida de lo posible, en la propuesta los nombres irán en ese orden, dando al viajero la información más precisa posible, ayudándole a elegir la estación adecuada.

| Denominación actual | Propuesta académica |
|---|--|
| <p>Línea 1 Bolueta Basarrate Santutxu Casco Viejo Abando Moyúa Indautxu San Mamés Deusto Sarriko San Inazio Lutxana Erandio Astrabudua Leioa Lamiako Areta Gobela Neguri Aiboa Algorta Getxo-Bidezabal Iberberango Berango Larrabasterra Sopelana Urduliz Plentzia</p> | <p>Línea 1 Bolueta Basarrate Santutxu Zazpikaleak/Casco Viejo (1) Abando Moyua (2) Indautxu San Mames/Santimami (3) Deustu (4) Sarriko San Ignazio (5) Lutxana Erandio Astrabudua (6) Leioa Lamiako Areta/Las Arenas Gobela Neguri Aiboa Algorta Getxo-Sarria (7) Getxo-Ibarra (8) Berango Larrabasterra Sopela (9) Urduliz Plentzia</p> |
| <p>Línea 2 Cruces Fueros Santa Teresa Urbinaga Sestao Abatxolo Portugalete Peñota Santurtzi</p> | <p>Línea 2 Gurutzeta/Cruces (10) Barakaldo (11) Bagatza (12) Urbinaga Sestao Abatxolo Portugalete Peñota Santurtzi</p> |

Notas:

Para la oficialización de los nombres de las estaciones se debe tomar en consideración el artículo 10 de la Ley Básica de Normalización del Uso del Euskera. En el punto uno del artículo diez de dicha ley dice que se respetará en todo caso la grafía originaria **académica** propia de cada lengua y en el párrafo tres, que en el caso de que las nomenclaturas sean sensiblemente distintas ambas tendrán consideración oficial.

1. El nombre secular y aún hoy utilizado por los vasco-parlantes es *Zazpikaleak*, y no el de *Alde Zaharra* de reciente invención, y copia mimética de San Sebastián. Así mismo, el Ayuntamiento de Bilbao en la rotulación de barrios utiliza la forma *Zazpi Kaleak/Casco Viejo*. Por todo ello y de acuerdo al citado artículo de la ley se deben oficializar ambos. Añadir que el nombre de la nueva estación de Euskotren es *Zazpi kaleak/Casco Viejo*.

2. Por ser nombre de casa y apellido de Bergara, apareciendo en 1391 en el barrio de *Oxirando*, sería aconsejable dar el nombre sin acento gráfico, *Moyua*, válido para ambas lenguas.

3. El hagiónimo *San Mamés* tiene un equivalente euskérico, *Santimamiñe* o *Santimami*, como se puede comprobar en el cercano valle del Txorierrri. En el caso de dar solamente la forma castellana, por la gran fama del campo de fútbol, debería darse la forma sin acento gráfico, *San Mames*, válida para ambas lenguas.

4. Por ser un nombre euskérico no se debe dar más que la forma *Deustu* de acuerdo con el párrafo 3 de la Ley antes citada.

5. Aún siendo correcta la forma *San Inazio* es más preferible *San Ignazio* como más culta.

6. La -a final es el artículo, por lo que al declinar se debe omitir.

7. **Sarria** (y sus derivados: *Sarri* y *Sarrias*) es el nombre que han utilizado y utilizan los getxotarras para designar esta zona, como se observa en el plano de Getxo realizado por M. Amann en 1953 (ver anexo). En las fogueraciones de Bizkaia del siglo XVIII aparecen los caseríos *Sarria-Aurrekoa*, *Sarria-bekoa* y *Sarria-atzekoa*, Igualmente señalar que es la zona original del apellido *Sarria*. Serían igualmente válida la designación de **Sarria**, y que la siguiente estación fuese **Getxo**.

8. Al contrario que *Sarria*, *Ibarbengoa* es un topónimo general sino el nombre de un caserío concreto, por lo que es mas apropiada la designación de **Getxo**, o si se quiere **Getxo-Ibarra**. El término *Ibarra* es más apropiado, puesto que además de su transparencia (significa *valle*, *vega*) es el origen de los caseríos *Ibarra* e *Ibarbengoa*, hoy en día *Ibertxu* e *Ibarberango*. Esta última casa aparece documentada en las fogueraciones del siglo XVIII como *Ibar-*

bengoa, aunque a partir del año 1953 aparezca el nombre *Iberberango*, creado equívocamente por falsa etimología popular. El caserío en cuestión ha desaparecido, pero M. Elgezabal, que vivió en dicho lugar y cuya madre nació en él, confirmó que el nombre original es *Ibarbengoa*, aunque la estrada que conduce a él se llame oficialmente *Ibarrangoa*. Finalmente añadir que muy probablemente la estación en cuestión no se ubique en los términos de dicho caserío sino en los de alguno adyacente. Este último punto se ha tomado en cuenta para elegir el nombre de **Getxo-Ibarra**.

9. **Sopela** es la forma usada por los vasco-parlantes, y multitud de castellano hablantes, como aparece en el Nomenclator realizado por esta Real Academia, por caída de la *n* intervocálica al igual que sucede con *Fruiz*, *Gal-dakao*, *Leioa*, *Lemoa*, *Lemoiz*, *Zestoa*, *Lazkao* y *Dorrao*, todos ellos oficializados por sus respectivos ayuntamientos.

Línea 2:

10. Según el artículo antes citado se deben oficializar ambos nombres, puesto que la forma euskérica no es traducción del castellano, sino la forma castiza castellanizada como *Guruceta*, presente incluso en la toponimia urbana o callejero de dicho barrio.

11. Teniendo en cuenta que *Barakaldo* es el segundo municipio de Bizkaia en población, sería conveniente, al igual que en *Sestao*, *Portugalete* y *Santurtzi*, la utilización del nombre del pueblo, de especial ayuda para viajeros procedentes de otros lugares.

12. Según un informe del Servicio de Estadística del Ayuntamiento de Barakaldo (y que se adjunta) el nombre del distrito en cuestión es *Bagaza* (del euskera *Bagatza*) y *Beurko*, y no el de la Iglesia de Santa Teresa, erigida en honor de la patrona de la *Sección Femenina de la Falange*, e inaugurada el 24 de junio de 1962, con motivo de la celebración de los actos del XXV aniversario de la *liberación* de la localidad, que da nombre a la plaza situada delante de dicha iglesia.

Y para que conste y surta efectos, expide la presente en Bilbao, a veintitrés de abril de mil novecientos noventa y seis.